

BULLYING



ESKOLA JAZARPENA

familiendako informazioa

BULLYING

Gainontzekoekin harremanak izateak berarekin dakar, batzuetan, nolabaiteko gatazka maila bat, gure eta gainontzekoen interes, beharrian eta balioen artean bateratasunik ez dagoenean. Desberdintasun hauek modu eraikitzailean konpontzeak hainbat trebetasun eskatzen du. Trebetasun horiek gure seme-alabek helduekin eta beraien *berdinekin* (ikaskideekin eta lagunekin) duten esperientziaren bidez jasoko dituzte.

Ikasprozesu horretan, berebiziko papera dute familiako, eskolako eta gizarteko bizigiroek. Horiei dagokie elkarbizitza ona erraztuko duten jarreraren garapena sustatzea. Elkarbizitza ona ondoko honetan oinarrituko da:

- Errespetua pertsona guztiei, bakoitza bere gaitasunekin altxorra dela sentituz.
- Sentimenak eta emozioak adieraztea ahalbidetuko duen komunikazioa, inoren izen ona galarazi gabe.
- "Bestea" ulertzen eta bere lekuan paratzen saiatzea.
- Gatazketan konponbidea bilatzea, taldeko kide aktiboa sentituz.

Nerabezaroan, berdinen taldea gizarteratze iturririk nagusia izaten da, eta seme-alabek horietan garatzen dituzte elkarbizitzarako funtsezkoak diren trebetasun eta baliabideak. Baina taldea erreferentzia eredu negatiboa ere izan daiteke, harreman horietan moralki onargarria denaren mugak gainditzen dituzten menderatze eta menekotasun egoerak gertatzen direnean. Gutako askok oroimenean gordeta ditugu beste ikaskide batek izandako jazarpen tratua, kasu, isekak, barregarri uztea, zurrumurruak zabaltzea, mehatxuak...

Eskola giroko indarkeriaren gainean egin diren ikerketek esaten dute ikasleen %3 eta %5 artean daudela nahastuta tratatu txar larrietan.

Egoera hau, eskolatzeko garaian guztian zehar ematen ahal bada ere, eragin handiagoa du nerabezaroan, berebiziko garrantzia hartzen duelako adin tarte honetan berdinen taldeak.

Gida honen xedea da familiei laguntzea, identifikatzen eta tratatzen, beraien seme-alabak izan ditzaketan jazarpen egoerak.

ZER DA JAZARPENA EDO BULLYING-A ?


Komeni da kontuan izatea elkarbizitzatik eratorritzen diren gatazka guztiak ezin ditugula jazarpenetzat hartu. Berdinen arteko harreman txarra, portaera eta diziplina arazoak eta diziplina eza gatazkek dira, eta modu egokian konpontzen badira, sozializatorako trebetasunak garatzen laguntzen dute.

Eskola jazarpena edo bullying-a portaera bat da: haur batzuek beste batzuei (biktimizei) luzaroan egindako ahozko irainak, gizarte bazterketa, beldurtze psikologikoa edota agresibitate fisikoa. Jazarpenaz edo bullying-az hitz egiteko, ondoko baldintzak eman behar dira:

- 1.- Erasoak etenik gabe eta luzaroan gertatzen dira.
- 2.- Erasotzaileak menderatze-menekotasun harremana ezartzen du biktimarekiko.

JAZARPEN MOTAK:

- Ahozkoa: irainak, gaitzizenak, mehatxuak...
- Soziala: etengabeko bazterketa, zokoratzea, isolamendua...
- Psikologikoa: umilazioak, barregarri uztea, zurrumurruak zabaltzea...
- Fisikoa: kolpeak, ostikoak, bultzakadak.



ONDORIOAK

- Biktimarengan sortarazten ditu antsietate altua, autoestimu baxua, eskola porrota, segurtasun eza.
- Erasotzaileak menderatze-menekotasun harremana finkatzen du eta ezartzen dituen harreman guztietara orokortzen du.
- Ikusleak galdu egiten du sufrimenarekiko sentsibilitatea eta bizitzan indartsuenaren legeak agintzen duela ikasten du.

NOLA ANTZEMAN - IDENTIFIKATU

Ezin dugu biktimaren edo erasotzailearen profil argi bat egin, baina zantzu zenbaitek, zuhurtziaz erabiliak badira, arrastoak ematen ahal dizkigute antzemateko. Gure seme-alabek gatazkei aurre egiteko dituzten moduak behatzeak, entzute aktiboa praktikatzeak eta arazoei modu positiboan aurre egiteak jazarpena ote den identifikatzen lagunduko digu.

Zentzu honetan, komenigarria da behatzea aldaketak gertatu ote diren gure seme-alaben azturetan. Nahiz eta aldaketak ez diren beti etortzen jazarpen egoeretatik, adi egon behar dugu ondoko portaeretakoren bat ikusten badugu:

JAZARRIA BADA

- Harreman gutxi du ikaskideekin.
- Ez da etxetik bakarrik ateratzen eta eskolarako bidea aldatu egiten du.
- Triste eta bere baitan itxia dago.
- Helduen hurbiltasuna bilatzen du.
- Uko egiten dio eskolara joateari.
- Maiz falta zaizkio materialak.
- Lo egiteko arazoak ditu.
- Etxeko lanetan arreta jartzeko zailtasunak ditu.
- Errendimendu akademikoa jaitsi da.

ERASOTZAILEA BADA

- Familiaren baitan portaera agresiboak ditu.
- Pazientzia gutxikoa da, uneoro dago haserre bere desioak eta eskariak betetzen ez badira.
- Ez du sentsibilitaterik gainontzekoen sufrimenarekin.
- Ahozko agresibitatea edo agresibitate fisikoa erabiltzen du bere ideiak inposatzeko.
- Jendaurrean aritzen da irainka, umilazioka, eta besteak barregarri uzten.
- Zailtasunak ditu bere erreakzioak kontrolatzeko.

IKUSLE PASIBOA BADA

- Maiz egiten ditu aipuak erasoan gainean.
- Jazarpen egoeren artean bizi da, nahiz eta ez zaizkion atseginak egiten.
- Esku hartu nahi du, baina beldur da.
- Bere isiltasunarekin bortxazko ekintzak laguntzen ari da, zeharka bada ere.
- Ez daki nola lagundu jazarria den ikaskidea.

NOLA JOKATU

JAZARRIA BADA:

- Emaiozu segurtasuna, isiltasuna hauts dezan.
- Egoera aztertzen lagun iezaiozu, errudun sentiarazi gabe.
- Lagun iezaiozu konponbideak bilatzen, segurtasun gabezia handiagoa eraginen dioten ekintzetara behartu gabe.
- Anima ezazu arazoaren gainean bere tutorearekin edo ikastetxeko irakasleekin jardutera.



JAZARLEA BADA:

- Saia zaitez arazoaren larritasuna ulertarazten erasoak berehalaxe geldituz.
- Gertatzen ari denaren gainean hitz egin. Egoerari erabakitasunez egin aurre, baina mehatxurik gabe.
- Ulertarazi egiozu zeinen kaltegarriak diren portaera horiek beretzat zein gainontzeko ikaskideentzat.
- Eman egizkiozu portaera positiboen ereduak, jarrera eta portaera berriak har ditzan.
- Lagun iezaiozu pentsatzen nola konpondu egindako kaltea.
- Bere portaeran behatuko dituzun aldaketa positiboak indar itzazu.
- Jar zaitez harremanetan ikastetxearekin, eta lagundu elkarbitzita planarekin koherenteak izanen diren ekintzak egiten.

IKUSLEA BADA:

- Hitz egin ezazu berarekin bortxazko egoerek eragiten dizkieten sentimenen gainean.
- Ulertarazi egiozu bere isiltasunak erasotzaileari laguntza ematen diola eta indarkeria INOIZ ez dela bide egokia gatatzak konpontzeko.
- Aipa egiozu jarrera pasiboek nola laguntzen duten indarkeria areagotzen.
- Lagun egiozu arazoari konponbideak bilatzen.
- Saia zaitez seme-alaba ongi sentiarazten bidegabeko egoera pairatzen duen ikaskide bati laguntzen dionean.

Zure seme-alaba nolabaiteko jazarpena pairatzen ari dela uste baduzu eta ez badakizu nola egin aurre.

Laguntzarik behar baduzu

jar zaitez harremanetan ikastetxearekin

Gainera, hezkuntza departamentuak harrera zerbitzu bat jarri du abian gurasoendako, irakasleendako eta ikasleendako. Zerbitzu honekin harremanetan paratzen ahal zara doaneko **900841551 telefonoaren** bidez edo mezu bat igorritz ondoko helbide elektronikora: convive@cfnavarra.es

Web orria: www.pnte.cfnavarra.es/convive

